

aLeKa

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2021eko azaroa

04-05

ETORKIZUNeko TOLOSA

La Tolosa del futuro

06-07

TOLOSA JASANGARRIAGOA

Un Tolosa más sostenible

10-13

AZKEN BERRIAK

Actualidad tolosarra

15

AGENDA

¿Qué quieres hacer?



**TOLOSA
ERABERRITZEN**

*Trabajando por un municipio más
agradable, seguro y accesible* **02**. or.



TOLOSA ERABERRITZEN

T

olosako Udalak lanean dihardu pertsonak erdigunean kokatzen dituen herri eredu baten alde. Tolosako kale eta gune publikoak zaharberritzen jarraitzen du Udalak, tolosarrentzat herria atseginagoa, zainduagoa, seguruagoa eta irisgarriagoa izan dadin.

Dagoeneko gauzatu diren eta hurrengo hilabeteetan egingo diren berrurbanizazio eta zaharberritze proiektuetan oinezkoak dira protagonista; ere, helburua da hirigunean oinezkoei lehenetsua ematea, espazio zabalagoak sortuz oinezkoen segurtasuna indartzeko. Eraberritze lanen oinarritzeko beste helburuetako bat da mugikortasun jasagarriagoa sustatzea.

Hori horrela, 2021. urteko aurrekontuetan hainbat obra eta lan aurreikusi zituen Udalak, eta dagoeneko amaitu ditu proiektu horietako batzuk, esaterako Laskoain kalea eraberritzeko lanak, Gernikako Arbola berrurbanizatzekoak, Euskal Herria plazako zorua berritzeko lanak, Samaniego Herri Eskolako kiroldegia birgaitzeko obrak... Beste batzuk, berriz, hastear daude: Paper kalea eraberritzeko lanak, San Frantzisko pasealekuaren eta Pedro Tolosa pasealekuaren arteko bidegurutzea biribilgune bihurtzeko obrak... Etorbizuneko Tolosa marrazten eta eraikitzen jarraitzea da helburua, tolosar guztientzat pentsatutako herria irudikatuz, Tolosa atseginago baten alde.

El Ayuntamiento de Tolosa continúa trabajando en pro de un modelo de municipio que sitúa a las personas en el centro; sigue renovando y restaurando las calles y los espacios públicos para que para que Tolosa sea más agradable, segura y accesible para las y los tolosarras. Todas las actuaciones urbanísticas llevadas a cabo hasta el momento y aquellas que se desarrollarán en los próximos meses tienen como objetivo fomentar una movilidad más sostenible en el municipio y sobre todo dar prioridad a las personas en el espacio urbano, creando espacios más amplios y accesibles.

Persiguiendo dichos objetivos se han incluido una serie de obras y trabajos en los presupuestos de este año 2021. Algunos de estos trabajos ya están finalizados, como, por ejemplo, la reforma de la calle Laskoain, la reurbanización de Gernikako Arbola, la renovación del suelo de la plaza Euskal Herria, las obras de restauración del polideportivo de Samaniego Herri Eskola... Otros están a punto de comenzar: las obras de reforma de Paper kalea, la nueva rotonda entre el paseo San Francisco y la calle Pedro Tolosa... El objetivo es seguir construyendo y dibujando la Tolosa del futuro, una Tolosa pensada para todas y todos, una Tolosa más agradable para toda la ciudadanía.

AMAITUTAKO ERABERRITZE LANAK

Gernikako Arbola

Lanen helburu nagusia izan da oinezkoei lehenetsua ematea. Paseatzeko espazio gehiago eta irisgarriagoa dago orain, espaloiak zabaltzarekin batera, arrapalak birkokatu eta espaloia eta bidea maila berean jarri direlako. Hiri altzariak, lorategiak eta azpiegiturak ere berritu dira eta LED argiak ipini dira energia kontsumoa murrizteko.

Las y los tolosarras disponen ahora de un espacio más accesible, amable y amplio para pasear. Se han ampliado las aceras, adecuado las rampas y colocado la acera y la carretera al mismo nivel.



Laskoain kalea


Espaloiak zabaldu dira, errepidea eta espaloia maila berean jarri dira eta "bizitoki" eremu izendatu da kalea oinezkoek lehenetsun osoa izan dezaten. Merkataritza jardura sustatzeko, "Gune Biziak" proiektua garatu da.

Se ha mejorado la accesibilidad de la zona y se ha desarrollado el proyecto "Gune Biziak" para fomentar la actividad comercial.

Euskal Herria plaza eta Triangulo atzealdea

Euskal Herria plazako arkupeetako zorua eta hiri altzariak berritu dira. Triangulo atzeladean zorua osorik berritu da koska arriskutsuak zeudelako.

Se ha renovado el suelo y el mobiliario urbano de los soportales de la plaza Euskal Herria. En la parte trasera del Triángulo se ha reformado el suelo en su totalidad.




Samaniego Herri Eskolako kiroldegia

Erdisotoko solairua, aldagelen sarrera inguruko kanpoaldea eta estalkia eraberritu dira, egoera txarrean zeudelako. Haur jolas-tokia ere berritu da, haurrek jolasteko eremu eroso, didaktiko eta erabilgarria izan dezaten.

Se ha reformado la planta semisótano, el exterior de la zona de la entrada de los vestuarios y la cubierta. También se ha instalado un nuevo parque infantil.

ETORKIZUNEAN GAUZATUKO DIREN PROIEKTUAK

Zumarditxikia




Udalarentzat lehentasuneko da Zumarditxikia berreskuratu eta herritarren eskura jartzea, ibaia herrian integratu, erdiguneari arnasa eman eta herritarrei aukera berriak eskaintzeko.

Sestra enpresa ari da proiektu berriaren zirriborroa garatzen, oinarri hartuta 2018ko partaidetza prozesuan landutakoa, eta proiektua Mugikortasun Plan berriarekin lerrotuta. Bi parte hartze saio egin dira zirriborroa herritarrekin partekatuz eta ekarpenak jasotzeko. Proiektu berria datorren urte hasierarako prest izatea aurreikusten da eta bien bitartean, udala, aparkalekuari irtenbidea emateko epe motz, ertain eta luzerako aukerak aztertzen ari da.



Será un proyecto para poner en valor este espacio emblemático y crear un nuevo lugar de referencia para la ciudadanía en respuesta a las necesidades actuales y recuperando el uso social que en su día tuvo el Zumarditxikia



Tolosaldeko Emakumeen Etxea



Tolosaldeko emakumeentzako bilera - eta topaketa - gunea izango da, eta hainbat jarduerari egin ahal izateko espazioak hartuko ditu: administrazio bulegoak, bilera gelak, askotariko ekintzetarako gunek eta 300 pertsona arteko edukiera izango duen jendaurreko ikuskizunetarako eta jardueretarako. Proiektua amaitzean dago, ondoren obren lizitazioari hasiera emateko.

Erdiguneko tren geltokia

Tolosa erdiguneko geltokiko irisgarritasuna hobetuko da, eta fluxuak bereiziko dituen pasabidea eraikiko da trenbideen gainean. Pasabideak eskailerak eta igogailua izango ditu, herritar ororen erabilera erraztu eta bermatzeko, eta Monteskuetako auzorako sarbidea erraztuko du.



Amarotz

Estalpe berria eta naturan integratutako jolasgunea eraikitzeko proiektua prest du Udalak. Erabilera anitzeko jolasgunea estalia egokituko da hexagonoan, eta haren ondoan dagoen belazean kokatuko dira jolas berriak.

Oinezkoentzako pasabidea

Belate pasealekua eta Larramendi kalea lotuko dituen oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabidea eraikiko da Oria ibaiaren ibilgutan, Gurutze Gorriaren etxe zaharraren parean. V.S. Servicios y Urbanismo, S.L. enpresak egingo dituen lanak, 876.364,34 euroko prezioan (BEZa barne).



TOLOSA JASANGARRIAGO

Tolosa herri jasangarriagoa bihurtzeko lanean jarraitzen du Udalak politika berdeen aldeko apustu argia eginez, mugikortasun eredu berriak sustatuz eta garraio estrategia jasangarriak bultzatuz. Hori horrela, azken urteetan, tokikotasunetik energia energia eta klima trantsizioari erantzuteko hainbat egitasmo, ekintza eta proiektu abiarazi ditu Tolosako Udalak, kutsadura eta gizakien ingurumen azterna murriztuko duten politika publikoak sustatuz.

Bide horretan, Mugikortasun Jasangarrirako Planean jasotako ekintzak gauzatzen ari da Udala, eta Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Plana garatzen. Eguzki plakak ipini dira Ferialekuan eta martxan da zero emisioko autobus elektriko bidezko Hiribus zerbitzua.

El Ayuntamiento sigue trabajando para que Tolosa sea un municipio más sostenible, apostando por las políticas verdes, promoviendo nuevos modelos de movilidad e impulsando estrategias de transporte sostenibles. De este modo, durante los últimos años, el Ayuntamiento de Tolosa ha puesto en marcha una serie de proyectos y acciones para promover la transición energética y responder al reto del cambio climático desde el ámbito local, promoviendo políticas públicas que reduzcan la contaminación y la huella ambiental humana.

Auditoria energetikoa eta eguzki plaken instalazioa

Trantsizio energetikoaren eta energia berriztagarrien aldeko apustuan, Udalak autokontsumo kolektiboko instalazio fotovoltaikoa ipini du Ferialekuan. Hurbileko instalazioekin lotuta dago, ondorioz, Ferialekuan sortzen den energia sare elektrikora joango da, eta 500 m-ko erradio batean Udalak dituen

kontsumo puntuen energia gastuarekin konpentsatuko da.

Bestalde, udal-eraikinen auditoria energetikoa egiten ari da Udala, egungo egoera ezagutzeko eta energia-efizientziarantz pausoak ematen ematen jarraitzeko ekintza plan bat osatzeko.



Martxan da Tolosako hiribus elektriko berria



El nuevo autobús urbano eléctrico es de cero emisiones, moderno y accesible. En total tiene capacidad para transportar 81 personas y dispone de 3 puertas y 21 asientos, 4 de ellos para personas con movilidad reducida y en silla de ruedas. Tiene 2 zonas para carritos de niños y niñas. Además, la accesibilidad también está garantizada con el sistema de rampa. El punto de recarga del nuevo autobús se ha situado junto al nuevo centro de referencia MUBIL; un espacio que representa la apuesta por la electromovilidad.

Tolosan Hiribus zerbitzua eskaintzen duen autobus elektriko berria 0 emisiokoa, modernoa eta irisgarria da. Guztira 81 pertsona garraiatzeko gaitasuna du eta 3 ate eta 21 eserleku ditu, horietatik 4 mugikortasun urriko pertsonentzako eta aulki gurgildunentzat. Ume kotxeentzat 2 gune ditu. Irisgarritasuna ere bermatuta dago arrapala sistemarekin. Autobus berria jasotzeko eta kargatzeko gunea MUBIL Elektromugikortasunaren zentro berriaren alboan kokatu da, elektromugikortasunaren aldeko apustuaren adierazle den gunean.

Hiribus elektrikoaren proiektua, aldaketa klimatikoari tokikotasunetik erantzuteko helburu eta elektromugikortasunaren aldeko apustuaren baitan kokatzen da

Bizikletak birgaitzeko gunea eta bizikleta aparkaleku gehiago

Bizikletak birgaitzeko gunea bat egokitzeko lanean dihardu Udalak Zumardia elkartearekin lankidetzan. Era berean, Tolosan bizikleta aparkaleku gehiago jarriko dira datozen hilabeteetan mugikortasun jasangarria sustatzen jarraitzeko.

Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Tokiko Planaren zirriborroa

Tolosako Udala Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Tokiko Plana garatzen ari da, energia eta klima trantsizioari tokikotasunetik erantzuteko helburuarekin. Herritarrei Planaren zirriborroa aurkeztu zaie eta zabalik dago ekarpenak egiteko epea.



Ikusi Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Tokiko plana eta egin zure zure ekarpena.

Biodibertsitate Eskola

Helduek biodibertsitatea lantzeko espazio bat garatzen ari da Udala: Biodibertsitate Eskola. Tolo-sarrentzako gune ireki bat izango da, non biodibertsitatearen eta ingurumen-sentsibilizazioaren inguruko lanketa egingo den.

ELKAR ZAINTZEN DUEN TOLOSA

Tolosako Udalarentzat lehenasuna da herritarren ongizatea bermatzea eta hartzen diren erabakietan pertsonak erdigunean kokatzea. Gizarte Zerbitzuen etengabeko hobekuntzan jarraitzen du Udalak, kohesio sozialaren, integrazioaren, berdintasunaren eta tolosar guztien ongizatearen aldeko apustuan, herritar zaugarrienen beharrei erantzuteko.

Gizarte zerbitzuak herritarrengana gerturatzeko lanean ari da Udala, izan ere, mota anitzeko beharrei erantzuten die Gizarte Zerbitzuen Sailak. Ahalegin horretan, Gizarte Zerbitzuen Gida irakurterreza 6 hizkuntzetan dago eskuragarri, herritarrei modu ulerterrazean eskaintzen diren zerbitzuen berri emateko eta kolektibo guztientzat erabilgarria izan dadin.

Para el Ayuntamiento de Tolosa es una prioridad garantizar el bienestar de la ciudadanía y situar a las personas en el centro de cualquier decisión. El Ayuntamiento trabaja en el fortalecimiento de los Servicios Sociales en su apuesta por la cohesión social, la integración, la igualdad y el bienestar de todos y todas los tolosarras, para atender las necesidades de las y los ciudadanos más vulnerables.

El Ayuntamiento continúa trabajando para acercar los servicios sociales a la ciudadanía, ya que el Departamento de Servicios Sociales atiende necesidades de diversa índole. En ese sentido, la guía de Servicios Sociales de lectura fácil está disponible en 6 idiomas, a fin de que sea útil y comprensible para todas y todos.

Hobekuntzak hainbat gizarte zerbitzutan

Arlo sozioedukati boan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua kontratazeko lizitazioa abiarazi du Udalak, zerbitzu berria martxan jartzeko. Datozen hilabeteetan abiatuko da Eguneko Arreta Zerbitzu berria ere, osatuagoa eta integralagoa, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen ongizatea bermatu eta beren autonomia mailari eusten laguntzeko.



El Ayuntamiento ha puesto en marcha la licitación para la contratación del servicio de intervención socioeducativa y psicossocial, y en los próximos meses se activará el nuevo Servicio de Atención Diurna para ofrecer unos servicios más integrales y de mejor calidad.

Adinkide, urtebete adineko pertsonekin lanean

Adiskidetasun harremanen bitartez, bakardade egoeran dauden adineko pertsonen ongizatea hobetzea helburu duen programak urtebete baino gehiago darama ia martxan Tolosan. Egun 14 boluntariok eta 10 adinduk osatzen dute Tolosako taldea.

Lleva en marcha más de un año y actualmente en el grupo de Tolosa participan 14 voluntarios/as y 10 personas mayores



Etxez etxeko arreta zerbitzua

Udalak eskaintzen duen etxeko zerbitzuan hainbat hobekuntza txertatu dira aurtun, etxean bakarrik dauden pertsonei komunitate-ingurunean integrazteko aukera emateko eta isolamendu-egoerak saihesteko.

Aurtun txertatu diren hobekuntza nagusiak / Mejoras en el servicio:

- Precio público máximo de 15 euros.
- Atención los 365 días del año.
- Aumento de horarios (antes 15 horas semanales, ahora 28).
- Ampliación del servicio de atención a otros colectivos.
- Mejoras en las condiciones laborales del personal.



Gazteen boluntarior azoka

Gazteen artean boluntariora sustatzeko, herri eragileen sarea indartzeko eta gazteen ekintzailera, sendotze sozio-komunitarioa eta elkarlan publiko-komunitarioa indartzeko, Tolosako Izaskun auzoan boluntariora azoka antolatzen dute Udalak eta Inmakulada Ikastetxeak lankidetzan. Hainbat erakunde eta gizarte eragilek haien boluntariora-proiektuak aurkeztu dituzte gazteen aurrean. 700 gazte baino gehiagok parte hartu du.

AZKEN BERRIAK

Actualidad

MUGIKORTASUN ASTEA ETA ASTEKLIMA

Aurtengo Mugikortasun Asteko leloa "zaindu osasuna, mugizaitzez modu jasangarrian" izan da. Udalak, Ingurumen Zentroarekin elkarlanean, hainbat ekintza antolatu ditu herrian mugikortasun jasangarria sustatzeko.

La Semana de la Movilidad se ha celebrado bajo el título "cuida de tu salud, muévete de forma sostenible", donde se han llevado a cabo diversas actividades para fomentar la movilidad sostenible.

Bigarren eskuko bizikleten azoka antolatu zuen Udalak Zumardia elkar-tearekin elkarlanean, jasangarritasuna, elkartrukea eta objektuen berrerabilpena sustatzeko. Guztira 131 produktu jaso eta 46 salerosketa egin ziren.



"Bizikletaz adinik ez" ekintza

Bide heziketa saioak egin dira Tolosako 6. mailako ikasleekin garraio desberdinen arteko bizikidetasuna sustatzeko, eta errespetua eta segurtasuna bermatzeko jarrera eta praktika onak zabaltzeko.



Bigarren eskuko bizikleten azoka

"Bizikletaz adinik ez" ekintza egin da Mugi Tolosako partaideekin batera adinekoek eta aniztasun funtzionala duten pertsonen bizikletan ibiltzeko aukera izan dezaten.

Dentro de las actividades realizadas dentro de la Semana de la Movilidad se han celebrado una feria de segunda mano de bicis y patinetes, sesiones sobre seguridad vial en los centros escolares de Tolosa y la actividad "En bici no hay edad" junto con las y los participatpnes de Mugi Tolosa.

Asteklimaren baitan, heziketa saioak, hitzaldiak eta ibilbide gidatuak ere antolatu ditu Udalak irailean, aldaketa klimatikoaren erronka globalari tokikotasunetik erantzuteko urratsak ematen jarraitzeko.



Bide heziketa saioak

HAUR, GAZTE ETA NERABEEN DIAGNOSTIKOA ETA PLANA GARATZEKO PROZESUA MARTXAN

Tolosako Udalak herriko haurren, nerabeen eta gazteen egoera zein den ezagutu nahi du, aurrera begira lanean jarraitzeko lan ildoak zehazteko. Lehenik herritarren egoerari buruzko diagnostiko zehatza egingo du Udalak datozen 5 hilabeteetan eta ondoren giza talde bakoitzaren beharrei egokitutako Gazteriarako Udal Plana diseinatuko du.

Diagnosiaren prozesuan, herriko gazteez gain, hainbat eragilek parte hartuko dute: besteak beste, kirol elkarteek, aisialdi taldeek, ikastetxeek, gizarte alorreko elkarteek, kale hezitzaileek eta guraso taldeek.



El Ayuntamiento elaborará un diagnóstico y un plan para diseñar y definir las políticas de juventud en colaboración con agentes y jóvenes del municipio

AURRETIAZKO ZITAREKIN EDO ZITARIK GABE ARTATUKO DA UDATEN

Larrialdi egoera amaitutzat emanda, UDATEk, herritarren arreta bulegoak, erabateko normaltasuna berreskuratu du. Herritarrek aurretiazko zitarekin edo gabe bertaratu ahal izango dute eta barruan itxaroteko aukera ere badago.

Aurrez aurreko arreta zerbitzua egunero eskaintzen da, asteleheneetik ostiralera 07:15etik 14:15era, eta ostegunetan 19:00ak arte.



UDATE recupera la normalidad y ya no es preciso acudir con cita previa. Asimismo, las y los usuarios podrán esperar su turno dentro de la oficina de atención a la ciudadanía.

KULTURA PLAZARA JAIALDIA, ERABAT ARRAKASTATSUA



Tolosako Udalak aurten lehen aldiz, eta pandemia garaian gainera, jaialdi formatuan antolatu du Kultura Plazara egitas-moa. Ahalegin handia egin du Udalak jaialdia antolatzeko, bai giza baliabideen aldetik, baita baliabide ekonomikoen aldetik ere, eta guztira 143.424,96 euro bideratu ditu jaialdira, kulturaren aldeko apustu argian.

8.000 ikusletik gora bertaratu dira jaialdira, eta guztira 47 ikuskizun antolatu ditu Udalak, herritarrei arte eszeniko ezberdinez eta kulturaz modu seguruan gozatzeko aukera eskaintzeko, artista eta taldeen lana babesteko eta ezagutzera emateko, eta Tolosa berriz ere kultur arloan erreferente bilakatzeko. Harrera oso ona izan du jaialdiak eta oso balorazio positiboa egin du Udalak, helburuak eta aurreikuspenak bete eta gainditu direlako.



El Ayuntamiento de Tolosa ha realizado un gran esfuerzo y ha hecho una apuesta clara a favor de la cultura y del festival, destinando un presupuesto total de 143.424,96 euros para ofrecer a la ciudadanía la posibilidad de disfrutar de diferentes artes escénicas y de la cultura de forma segura, apoyar y dar a conocer la cultura y el trabajo de artistas y grupos locales y convertir Tolosa de nuevo en un referente en el ámbito cultural. Se han llevado a cabo un total de 47 espectáculos y el festival ha tenido una gran acogida, con casi 8.000 espectadores. El Ayuntamiento ha cumplido y superado los objetivos definidos y las expectativas que tenía.




ALOKAIRU ORDAINKETA ERRAZTEKO DIRULAGUNTZAK

Tolosako Udalak lehen aldiz eskaini ditu alokairu ordainketa errazteko dirulaguntzak. Deialdia jabetzan etxebizitzarik ez duten eta alokairuan bizi diren tolosarrei bideratu zaie, zehazki 18 eta 35 urte bitarteko gazteei eta behar bereziak izan ditzaketen herritar eta familiei. Udalak

etxebizitzaren alorrean helburu du tolosar ororen etxebizitza eskubidea bermatzea eta herritarrei aukera berriak eskaintzea. Hori horrela, dirulaguntza berri honen xedea da tolosarrei alokairu-erregimeneko etxebizitza bat lortzen eta alokairuko merkatu librean sartzen laguntzea.

Por primera vez, el Ayuntamiento de Tolosa ha puesto en marcha una línea de ayudas para el alquiler dirigidas a las y los tolosarras que no tienen ninguna vivienda en propiedad y viven de alquiler, en concreto a jóvenes de 18 a 35 años y colectivos especiales.



ELKARBIZITZA HOBETZEKO EKIMENAK

Geroz eta txakur gehiago daude Tolosan eta, hainbatetan, gatazkak edo gaizki-ulertuak sortzen dira txakurren jabeen eta gainerako herritarren artean. Hori horrela, elkarbizitza indartzeko helburuarekin eta hainbat tolosarrek egindako eskaerari erantzunez, txakurren jabe diren eta ez diren tolosarren arteko elkarbizitza sustatzeko hainbat lan lerro garatzen ari da Udala. "Txakur eredugarri" programaren baitan heziketa saioak egingo dira, hitzaldiak

El Ayuntamiento ha puesto en marcha iniciativas para mejorar la convivencia entre personas propietarias de perros y resto de ciudadanía por medio del programa "perro ejemplar" y la creación de nuevos parques para perros.

antolatu dira, eta herrian txakurrentzako soilik izango diren eremu gehiago sortzeko aukera ere aztertzen da Udala.

OSPITALE PUBLIKOA ERAIKITZEKO URRATS BAT GEHIAGO

Tolosako Udalak urratsak egiten jarraitzen du eskualdeko ospitale publikoa eraikitzeko. Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorren aldaketa puntuala abiarazi da indarrean dagoen HAPOak lurramendiko eremuan ospitale publikoaren eraikuntza aurreikusi dezan. Prozesua herritarren parte hartzearekin gauzatuko da. Bi saio ireki egingo dira, lehen, diagnosa egin eta ekarpenak jasotzeko eta bigarrena, dokumentua herritarrekin partekatzeko.



El Ayuntamiento da un paso más para posibilitar la construcción del nuevo hospital público, poniendo en marcha la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana para que el vigente PGOU contemple la opción de construir un hospital público en el ámbito de lurramendi.

TRIBUNA

Alderdien iritzia



Normaltasunerantz, etorkizuna jomugan

Urteko azken hilabetei indarrez ekin diegu. Etorkizunean jarrira begirada, hainbat proiektu esku artean ditugula.

Azken hilabeteetan ahalegin eta baliabideak pandemiari aurre egitera bideratu behar izan ditugu, estrategikoak diren proiektuak albo batera utzi gabe. Datozen hilabeteetan hasiko dira Paper kaleko lanak, Belate-Larramendiko pasabidekoak, San Frantziskoko biribilgune berrikoak... eta horiez harago, aurre-rapauso garrantzitsuak egin ditugu beste hainbat proiektutan ere: Zumarditxikia, Amarotz, Apeadero, Emakumeen Etxea, Usabalgo 3. fasea... Horiek guztiak prest izango ditugu datorren urterako.

Itxaropentsu heldu diogu, beraz, ikasturte berriari, baita aurrekontuen lanketari ere, azken urte berezi bezain zail hauen ondotik Tolosa biziberritzea, Tolosak ohikoa duen jarduera berreskuratzea eta herritarren egungo zein etorkizuneko beharrei erantzuten jarraitzea dugulako helburu nagusi.

Con la mirada puesta en el futuro. Así es como hemos iniciado esta recta final del año, con muchos proyectos e iniciativas entre manos que darán comienzo este año y el siguiente; porque la atención que ha requerido la pandemia no nos ha desviado del camino a seguir y de los proyectos previstos. Tolosa debe recuperar su pujanza y debe seguir avanzando; ello es clave para el futuro de nuestro municipio.



Egingo denaren berri ematea beharrezkoa da, baina ezinbestekoa da ere esan denaren eta benetan egin denaren alderaketa egitea. Hori da bidea, herritarrek informatuak izateko eta egindako akatsetatik ikasteko.

2021eko aurrekontuen gauzatzea zenbaterako izan den likidazioa egiterakoan jakingo dugu. Bitartean, 2020ko datuak ditugu eskuarte:

- Behin betiko aurrekontuaren exekuzio maila % 65ekoa izan zen.
- Suspertu Tolosa plana aztertuta ikus dezakegu 1,3 milioi euroetatik erdia baino gutxiago erabili zela. Gizarte babesa, hiri ekonomia eta herri izaera babestu eta suspertzeko neurrien erdia ere ez zen egikaritu.
- Mikroenpresa eta autonomoentzako osatu zen dirulaguntzarako esaterako, 725.000 €ko partidatik, 113.730,44 € soilik erabili ziren, % 16a besterik ez alegia.
- Inbertsio publikoetarako behin betiko aurrekontuan 6.272.206,64 euroko inbertsioa aurreikusita bazegoen ere, 1.236.694,90 euro bakarrik erabili ziren, hau da, aurreikusitakoaren % 20a baino gutxiago gastatu zen.

Udal gobernari eskatzen diogu zintzoak eta kritikoak ere izateko esaten eta egiten dena alderatuz. 2021 honetan tolosarron beharrei behar bezala erantzuteko, aurrekontuaren exekuzio maila altuagoa izatea espero dugu.



Etxebizitza bat eskuratzea da gaur egun Tolosan dugun arazorik handienetako bat. 30 urte bete arte gurasoen etxean bizitzera behartuta dauden gure gazteen emantzipazioa eragozten du. Etxebizitza eskubide bat baino gehiago da. Metro karratuaren prezio altua dela eta, ezinbestekoa da administrazio publiko ezberdinak elkarlanean aritzea.

El equipo de gobierno PNV-PSE.EE, viene trabajando arduamente para hacer frente a esta problemática. Pronto se firmará con VISESA, sociedad pública del GV para la promoción de vivienda pública, el convenio que permitirá la construcción en Amaroz entorno a 70 viviendas que serán en régimen de alquiler.

El aumento de la oferta de vivienda será una realidad en los próximos meses cuando se inicie la construcción en el entorno de Lurramendi y en el solar de la antigua clínica de San Cosme. En el 2022 quedará redactado el plan de urbanización de San Esteban a partir del cual iniciativa pública y privada podrán iniciar la construcción de vivienda nueva.

40.000 euros que pueden ascender hasta 60.000 en función de la demanda que se de, es el dinero puesto por el Ayto. para facilitar el pago de alquiler a jóvenes de entre 18 y 35 años, a personas separadas, divorciadas o personas que han dejado de ser pareja de hecho y a familias monoparentales.

AGENDA

Udazkenean ere, Tolosa kulturaren erreferente!

12 AZAROAK
Yo, la peor de todas. Vaiven
20:30ean, Leidorren

13 AZAROAK
"Bart non ote nintzen ni?" Txirri, Mirri eta Txiribiton (bonutik kanpo)
18:00etan, Leidorren

19 AZAROAK
Nøgen (bonutik kanpo)
20:30ean, Leidorren

03 ABENDUAK
"Irabazi" Jon Plazaola (bonutik kanpo)
20:30ean, Leidorren

17 ABENDUAK
Barretourra - Barrexerka
20:30ean, Leidorren

18 ABENDUAK
Ene kantak
Leidorren

29 ABENDUAK
Irteera argiak-Eñaut Elorrieta
20:00etan, Leidorren

Agenda osoa ikusgai: agenda.tolosa.eus

*Beharrezkoak diren prebentzio eta segurtasun neurri guztiak hartuko dira ekitaldi guztietan.

UDAL TRAMITEAK EGITEKO MAKINA BERRIA JARRI DA USABAL KIROLDEGIAN

Egin daitezkeen
izapideak:

- Errolda ziurtagiriak eskuratu
- Erreziboak ordaindu
- Ordainketa gutunak ordaindu
- Erreziboen kopiak eskuratu
- Isunak ordaindu
- Espedienteak kontsultatu



ERABILGARRI KIROLDEGIKO ORDUTEGIAN.



Plaza Zaharra 6A
20400 Tolosa, Gipuzkoa
Tel.: 946 654 466
update@tolosa.eus

Jendaurreko arreta:
Astelehenetik ostiralera:
07:15 - 14:15
Ostegunak: 7:15 - 19:00

